

Julene Urzelai, hizlaria

Deia, 1983-07-01.

Gure herrian ez du emakumezkoak politika arloan leku handirik izan.

Ez eta gizartekoan ere.

Hainbeste aipatzen den matriarkatu hori, zertan geratu da ba? Denbora batean senidetetasunak *amaren* aldetik zuela lehentasuna? Hori ez da gutxi, baina ez digu euskal gizartean kutsu handirik utzi. Etxe barrutian bai, agerian dago hau aspaldi; etxeko jaunak mahai burutik baino mahaian exeritzen ez den etxekoandreak sukaldetik gehiago agindu izan du; gure amonek ez zuten gaurko emakumezkoek bezala praktarik jantzi behar etxean agintzeko.

Baina emakumezkoak politikarako duen sena hau berria dugu.

Berria da, usadio bezala; ez bait dugu ahaztu behar izan dugula aurrelaririk Dolores Ibarruri, komunista, politikatik irten gabe adineko laurogeitaka eta oraindik horretan ari dena. Baina hau, gramatikan aipatzen den salbuespen modura jokutzen duena da, araua baieztatzen du.

Nolanahi, gerra aurreko Autonomia borrokatzeko lanetan bazebiltzen gutxienez emakumezko hiru *hizlari* bikain: Julene Urzelai, gipuzkoarra; Polixene Trabudua, bizkaitarra eta Karmele Gamarra, arabarra. Ez ziren politika *egiten* zutenak, esan nahi dut, ez zirela diputatu ez alkate, ezta zinegotzi ere, baina abertzaletasunaz mintzatzen ziren trebeki mitinetan. Julene, beti gozoki, ahotsa behartu gabe; Polixenek, sutsuago; Karmele ez nuen ezagutu, Julene ari garenez gero, "Euskadiko Urretxindorra" deitura egokia eman zion herriak, eta andereño polit eta argi hau Agirre, Irujo, Monzon, Landaburu, "Alzeta", Herandorena eta beste ibiltzen zen plazaz plaza.

Gerra lehertu zitzaigunean, eta beste "Urretxindorra", handia, hau arra, Kepa Enbeita, gaisorik Arabako Laguardian, *Biasterin* mutu zegoela, Julenek "*Eresoinka*"n abestu zuen Europan zehar. Gero, Polixene eta biak Venezuelaratu ziren. Han izan ditugu biak orain arte, Julene 72 urte zituela ebakuntza baten ondoren hil, zaigun arte.

Azkoitiko tradizio ederrez jantzitako pelotari familiako alaba zen: aita, Jose Mari Urzelai, 1892an Markinako "el estudiante" deituaren aurka hiru partidu jokatu zituen txapelketa nagusia erabakitzeko, Markinan, Gernikan eta Azkoitian, eta hirurak irabazi. 1902garrengo txapelketa nazionala ere berea izan zen, eta bi urte gero, 1904ean, Elgoibarko "Baltasar" famatuari irabazi zion bestea.

Justino izan zen jarraitzailea; aita- semeak parejan lehen, eta gero berez; Jose Leon eta Iñaki, gazteagoak, hemen ezin eta Caracas-en egin zituzten egitekoak, eta ederrak. Julenek joan aurretik ikusi ahal izan du profesioz sendagile den semea pelotaren tradizio ederrari jarraipena ematen.

Julene Urzelai, gure herriaren zerbitzari zintzo hori, gero arte.